

28. atala BERTSOTAN

- *Jone, aurrekoan aipatu zenuen bertsolariak ere badirela lurretan, ez da ala?*

Jone ate Aritz neba-arrebak lurretako historia ezagutzen zebiltzan eta denboran zehar egiten ari ziren bidaiaren azken txanpa honetan lurretar ezberdinen lorpenak ari ziren deskubritzen.

- *Hala da Aritz. Nik dakidala lurretan bertso eskola bi izan ziren martxan. 90. hamarkada hasieran Urruxar bertso eskolako kideak Goiuria Ikastolako lokalean batzen hasi ziren erratz kirtena mikrofonotzat hartuta ondo pasatu eta tarteka bertso batzuk osatzeko. Beranduago Abadetxean gaztetxea izan zen sasoian Gure Barik bertso eskola jarri zuten martxan gazteek nahi gabe ere bertsoan egiten zutelako gaztetxeko parrandak luzatzen zirenean.*
- *Horren aurretik ez zen bertsoan egiten hemen?*
- *Nola ez zen ba egingo? – erantzun zuen Jonek erdi barreka – Jose Agustin Alberdi Astarloa "Txo" 1922, urtean jaio zen Ertzilurruti baserrian eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera ere iritsi zen hainbatetan 50. eta 60. hamarkadetan.*
- *Finaleraino heldu zen? – Aritzek harrituta.*
- *Bai Aritz. Baina sailkapena baino garrantzitsuagoa da nork bere bidea eginez ondorengoei ere aukerak zabaltzea. Hori egin zuen adibidez Kristina Mardaras Sedrunek. Oromiñoko San Marko jaietan kantatzetik 1986, urtean Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen, atzetik etorriko ziren horien bide-erakusle.*
- *Aupa Kristina! – Poztu zen Aritz!*

ARIKETA:

- Osatuko bertso bat zortziko txikian lurretari buruz?

- *Bai, garai hartan ez zen begi onez ikusten emakumeak jendaurrean, plazan, kantuan aritzea eta Kristina nahita igotzen zen oholtzara gona jantzita.*
- *Eta zer bertsolari gehiago ditugu gurean?*
- *Ezin aipatu gabe utzi Justo Alberdi bera edo Juan Mari Areitio, ederra da gaur oso lantzean behin bada ere hauek bertsoan entzutea. Gorka Lazkano bera ere berriztarra izan arren lurretara oso lotuta egon da beti. Gaur egun plazaz plaza gehien aritzen dena Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas" izango da. 1998. urtean hartu zuen parte lehen aldiz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan eta 2010. eta 2018. urteetan finalera iritsi zen.*
- *Nor da orduan lurretako bertsolari onena Jone? – Galdetu zuen aritzek irribarre bihurri batekin.*
- *Ona, ona... Ona zer den jakin behar, denak entzuten gozatzen dut nik. Hala ere lurretan ere egin izan da lurretako Bertsolari Txapelketa eta aurrenekoz antolatu zenean, Gipuzkoana tabernan ospatutako finalean Alaitz Areitio Azpiri izan zen nagusi!*

